

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL**IDIAZABALGO UDALA**

EIT aurkeztea errekerimenduaren jakinarazpen osagarria eta onartutako egutegia argitaratzea.

Idiazabalgo Udalaren eskumena da EIT-ri lotuak dauden jardunbideak programatzea edo planifikatzea, horretarako ahal ematen baitio azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriak. Hori dela-eta, abuztuaren 8ko 340/2017 Alkatezta Dekretu bidez, ondoan azaltzen den eraikinen ikuskapen teknikoen-EIT egutegia onartu da. Euskadiko Administrazio Orokorrak egindako planifikazioa jarraitzen da, salbuespen bat izan ezik.

Etxebizitzaren 3/2015 Legearen 52. artikulua obligazioa ezartzen die etxetxe guztiei, bai eraikuntza katalogatu eta babestu orenen jabeek, bai berrogeita hamar urte baino gehiago izanik bizitegitzat erabiltzen den eraikin orenen jabeek, Eraikinen Ebaluaketa Txostena, bizitegi kolektibo diren 50 urtetik gorako eraikuntzei buruzkoa, aurkezteko. Txosten horren bidez jakin eta egiaztatzen dira eraikinen kontserbazio-egoera, irisgarritasun unibertsala konplitzen ote den eta energia-eraginkortasunaren gradua.

Bestalde, 241/2012 Dekretuak, azaroaren 21ekoak, eraikinen ikuskaritza teknikoaren aplikazio-esparrua zabaltzen du familia bakarreko etxebizitza guztietara –salbu eta fatxada bide publikora ematen ez dutenetara edo erabilera publikorako espazioa ez dutenetara–, bai eta, ordenazioz kanpoko kategorian sailkatuak daudelarik, bizitegitzat erabiltzen diren eraikuntzetara ere. 241/2012 Dekretuak, azaroaren 21ekoak, estatuko eta Euskadiko ebazpenak azaltzen eta garatzen ditu; eta eraikinen ikuskaritza teknikoak estatuko IEE-ren ebazpenak ere jasotzen ditu (Eraikinen Kontserbazioa, Informazioa Energia Eraginkortasunaren Egiaztapenari buruz eta Irisgarritasun Unibertsalaren arautegia konplitzen delako Egiaztapena); eta zehazten du modu individualizatuan informatu beharra dagoela eraikinen egonkortasunaz, segurtasunaz, hermetikotasunaz eta egituraren sendotasunaz, horren barruan sartzen direlarik, zimendatzea, egitura, fatxada, estalkia eta elementu komunak. Baztertu egiten dira (Idiazabalgo Udalak Ordenantza bidez hala agintzen duen arte) sektoreko arautegi espezifikoaren menpe dauden instalazioak (esate baterako, igogailuak, instalazio elektrikoak, telekomunikazioak, berogailuarenak edo ur bero sanitarioaren produkzioak).

EIT-a, nahitaezkoa dena, bi modutan aurkez daiteke, egin beharreko konponketen arabera:

1. EIT-a aurkeztuz: 4. eta 5. graduak.
2. Konponketen ziurtagiria aurkeztuz: 1., 2. eta 3. graduak.

Nolanahi ere den, kontrako ikuskapen teknikoak eskatutako obrak egin edo konponketa ziurtagiria aurkeztu ahal izateko, interesdunek obra-baimenaren eskaera aurkeztu beharko dute Idiazabalgo udaletxean.

Etxebiteek EIT-a edo konponketen ziurtagiria aurkeztuko ez balute, Idiazabalgo Udalak, 2/2006 Legearen 203.4. artikuluan ezarriak dauden bideak baliatu ahal izango ditu (hertsatzeko isuna, betearazpen subsidiarioak, nahitaez desjabetzeko espe-

AYUNTAMIENTO DE IDIAZABAL

Notificación complementaria de requerimiento de presentación de ITE y publicación del calendario aprobado.

De conformidad con lo previsto en la Disposición Adicional 2.ª del Decreto 241/2012, de 21 de noviembre, la competencia para efectuar la planificación o programación de las actuaciones sujetas a ITE corresponde al Ayuntamiento de Idiazabal. Mediante Decreto de Alcaldía 340/2017, de 8 de agosto, se ha aprobado el calendario para la presentación de las inspecciones técnicas de los edificios-ITE que se detalla a continuación. Se sigue la planificación de la Administración General de Euskadi con una sola excepción.

La obligación de presentar Informe de Evaluación de los Edificios a los edificios residenciales colectivos de más de 50 años viene impuesta por el artículo 52 de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda, a todos los propietarios de toda construcción o edificación catalogada o protegida y de toda edificación de uso residencial de antigüedad superior a cincuenta años. Este informe permite acreditar el estado de conservación, cumplimiento de la accesibilidad universal y el grado de eficiencia energética.

Por su parte, el Decreto 241/2012, de 21 de noviembre, amplía el ámbito de aplicación de la inspección técnica de edificación a todas las viviendas unifamiliares, salvo que no tengan a fachada a vía pública o espacio de uso público y a las construcciones y edificios de uso residencial incluidos en la categoría de fuera de ordenación. El Decreto 241/2012, de 21 de noviembre, desarrolla las determinaciones estatales y vasca; en concreto, la inspección técnica de la edificación incorpora las determinaciones del IEE estatal (Conservación del Edificio, Información sobre la Certificación de Eficiencia Energética y Verificación del cumplimiento de las normativas de Accesibilidad Universal) si bien detalla la necesidad de informar de manera individualizada sobre su estabilidad, seguridad, estanqueidad y consolidación estructural, incluyendo cimentación, estructura, fachada, cubierta y elementos comunes. Quedan excluidos (hasta que el Ayuntamiento de Idiazabal por medio de Ordenanza así lo exija) las instalaciones sometidas a normativa sectorial específica (por ejemplo: ascensores, instalaciones eléctricas, de telecomunicación, de calefacción o de producción de agua caliente sanitaria).

La obligación de presentación de la ITE puede concluir de dos maneras en función del tipo de intervención:

- 1.º Con la presentación de la ITE: Grados 4 y 5.
- 2.º Con la presentación del certificado de subsanación: Grados 1, 2 y 3.

En cualquier caso, los/as interesados/as deberán solicitar licencia de obras en el Ayuntamiento con la finalidad de ejecutar las obras que requiera una inspección técnica desfavorable y de poder presentar el certificado de subsanación.

En caso de que los/as propietarios/as no atendieran al requerimiento y no presentaran la ITE o el certificado de subsanación, el Ayuntamiento de Idiazabal, podrá utilizar los medios previstos en el artículo 203.4 de la Ley 2/2006, de 30 de junio

dientea edo birgaitze-programaren esleipena) baita urriaren 1eko 39/2005 Legearen 100. artikulua, agintzen dituenak ere (betearazpen subsidiarioa, behartzeko edo hertsatzeko isuna edo premiamendu-bidea).

EIT-a ez aurkezteagatik egiten diren arau-hausteak oso larriak eta larriak ekainaren 18ko 3/2015 Etxebizitza Legearen 83. eta 84. artikuluetan arautzen dira hurrenez hurren, sortutako segurtasun-arriskuaren arabera eta zigortu ahal izango dira 90. Artikuluak xedatutako hitzetan. (Arau-hauste oso larriak hogeita mila eta bat (20.001) eurotik hirurehun mila (300.000) eurora bitarteko isunarekin eta arau-hauste larriak hiru mila eta bat (3.001) eurotik hogeita mila (20.000) eurora bitarteko isunarekin).

Eraikuntzen zerrenda honako hauetan ikusgai dago: www.idiazabal.eus, www.euskoregite.com eta udaletxeko iragarki-oholean. EIT egin ondoren, hamar urtean behin, ikuskatu beharko da.

Hau guztia argitaratzen da jakinarazpen osagarriaren eraginak sor ditzan urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikulua arabera eta azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuaren II. Xedapen Gehigarriak aurreikusitakoa betez.

Idiazabal, 2017ko abuztuaren 8a.—Alkatea. (5919)

(multas coercitivas, ejecución subsidiaria, expediente de expropiación forzosa o formulación y adjudicación del programa de rehabilitación) y en el artículo 100 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre (ejecución subsidiaria, multa coercitiva o apremio).

Las infracciones muy graves y graves, por falta de presentación de la ITE, en función del riesgo para la seguridad que generen, se regulan, respectivamente, en los artículos 83 y 84 de la Ley 3/2015, de 18 de junio, de Vivienda, siendo susceptibles de ser sancionadas en los términos previstos en el artículo 90 (Las infracciones muy graves se sancionarán con una multa de entre veinte mil un (20.001) euros y trescientos mil (300.000) euros y las infracciones graves con una multa de entre tres mil un (3.001) euros y veinte mil (20.000) euros.

El listado de edificaciones puede consultarse en www.idiazabal.eus, www.euskoregite.com y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento. Posteriormente a la fecha de redacción de la ITE, cada diez años, deberá realizarse una nueva inspección.

Todo lo cual se publica a los efectos de notificación complementaria de conformidad con el artículo 45.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre y en cumplimiento de lo previsto en la Disposición Adicional 2.ª del Decreto 241/2012, de 21 de noviembre.

Idiazabal, a 8 de agosto de 2017—El alcalde. (5919)

<i>EIT aurkezteko urtea</i>	<i>Derrigortutako eraikinak, kontserbazio-egoeraren arabera eta eraikitako urtearen arabera</i>	<i>Eraikin kopurua</i>
2017	Kale Nagusia 21	1
2018	-1967ra arte	224
2019	-1968 arte	3
2020	-1969 arte	1
2021az geroztik	Aurreko ekitaldian 50 urte betetako egoitza erabilerako eraikinek, EIT aurkeztu beharra daukate	

<i>Año presentación ITE</i>	<i>Edificios obligados según estado de conservación y año de construcción y</i>	<i>Número de edificios</i>
2017	Kale Nagusia 21	1
2018	Hasta 1967	224
2019	Hasta 1968	3
2020	Hasta 1969	1
A partir de 2021	Los edificios residenciales que hayan cumplido 50 años el año anterior, estarán obligados a presentar la ITE	